

8

Revista
de Estudios
Marítimos
del País Vasco

ITSAS
m e m o r i a

AZKUE ETXEBERRIA, Ane: "Imanol Ibarbia 'Txurro' getariarraren itsas traiektoria bere testuinguruan", ***Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco***, 8, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia-San Sebastián, 2016, pp. 431-440.



Imanol Ibarbia 'Txurro' getariarraren itsas traiektoria bere testuinguruan

Ane Azkue Etxeberria

BIBLID [1136-4963 (2016), 8; 431-440]

Recep.: 24.05.16

Acep.: 02.07.16

Resumen

En las páginas que siguen se han recogido la vida y oficio del difunto Imanol Ibarbia "Txurro" inmerso, más de media existencia, en el mundo de la pesca. Además, con el ánimo de dar a conocer cómo transcurría la vida en Getaria, se hace una aproximación a aquel contexto y se citan proyectos y vicisitudes que en la época tuvieron gran importancia en dicha localidad..

Palabras clave: mar, "Txurro", pesca, Getaria, muelle, vapor, Haizetsu.

Laburpena:

Getarian eta itsasoan; bizitzaren erdia baino gehiago arrantzaren munduan murgilduta bizi izandako Imanol Ibarbia zenduaren, 'Txurro', ogibidea eta ibilbidea jaso dira hurrengo artikuluan. Hori ez ezik, garai hartako bizimodua nolakoa zen ulertzeko, orduko testuingurura gerturatu eta Getarian garrantzia izan zuen hainbat proiektu eta gorabehera ere aipatzen dira.

Gako-hitzak: itsasoa, "Txurro", arrantza, Getaria, moila, bafoea, Haizetsu.

Abstract

This article discusses the life and work of the late Imanol Ibarbia "Txurro" who spent more than half his life involved in the fishing world. There is also additional background material on the context and some of the projects and events of particular importance to the Getaria of the time.


Keywords: sea, "Txurro", fishing, Getaria, quays, steam, Haizetsu.

AURKEZPENA

Jarraian, Getariako itsas kulturaren zati bat aztertuko dugu. Horretarako, batez ere, Getariako Imanol Ibarbia 'Txurro' arrantzale zenduaren testimonioan oinarritu gara, hain zuzen ere, 2014ko udazkenean Peio Iribarrek bere etxeko sukaldean egindako elkarrizketan.

Imanol Ibarbia 1924an jaio eta 2015ean hil zen, Getarian. Zortzi anai-arrebetatik laugarrena zen, bost mutil eta hiru neska, eta hamalau urtetatik itsasoan lanean hasitakoa. Hamalau urte zituela, udaberrian, kubieta gabeko motorrean ibili zen lanean, baita udan ere, *mallako* sareekin. Udan, Baltasar Garmendiaren ondoan, barbarinetan eta otarrain otarrarekin jardun zuen beharrea.

1939-1943 artean, 7-8 ontzi motordun eta lau edo bost batel ziren Getariako portuan. Otarrain arrantzarako, ontzi batzuk 40-45 otarre eramaten zituzten¹.



Imanol Ibarbia *Madre del Creador*
itsasontzian 45 urte zituela, 1969an.

Baltasarrekin lanean bi urte inguru pasatu zituenean, 'Xikleneko'ekin hasi zen lanean, eta haiekin hamabi urte eta erdi inguru egin zituen. Ondoren, *San Prudentzio* itsasontzira pasatu zen eta han lau urte iraun zituen.

Imanolek 30 urte pasatxo zituenean, Ibarbia anaiek elkarrekin lanean hastea pentsatu zuten, horretarako, ordea, dirua aurreztu beharra zuten baporea erosi ahal izateko, eta *Mariflor* itsasontzian hasi ziren lanean. *Mariflor* uda Zarautzen pasatzen zuen Donostiako nagusia zen eta harekin bi urte baino gehiago jardun ostean, azkenean, behintzat, erosi zuten *Mariflor* baporea.

Asko dira 'Txurro'tarrek maneiatu zituzten itsasontziak:

- *Mariflor* (1955-1956 urte inguruan erositakoa)
- *Madre del Salvador* (1962 urte inguruan egindakoa)
- *Madre del Creador* (1964-1965 urte inguruan egindakoa)
- *Ibarbia Hermanos* (1976 Azoresen, Portugaleko isla batean galdu zen)
- *Kukuarri* (*Ibarbia Hermanos* galdu ondoren Orion erositako barkua)
- *Haizetsu* (Bermeotik ekarritako azken itsasontzia)

¹http://www.eke.eus/eu/kultura/ondarea/ondare_inmateriala/eleketa/eleketa_itsas_ondarea/lekukotasunak/otarrain_arrantza_iza_guirre_web_ataritik_hartutako_informazioa.




Mariflor itsasontzia. 1955-56an erositakoa, Imanolek 30 urte pasatxo zituenean.



1962an egindako *Madre del Salvador* itsasontzian atuna harrapatzea.



Imanol eta bere bi anaiek, Patxik eta Iñakik, elkarrekin egiten zuten lan *Madre del Creador* itsasontzian, Patxi patroilari lanetan. Joxe, anailetan zaharrena eta patroia, anaia Andoni makinistarekin aritzen zen lanean.



Imanol Ibarbiak kontatua da bisigutarako tertzak prestatzen oso ona zela, ona bezain azkarra, eta sotoan egon ohi zen haiek prestatzen. Soto gehienak erdiko kalean zeuden, hau da, Kale Nagusian, beste batzuk moilan egoten ziren tertzak egiten. Imanolek, ordea, gaur egun Kaipe dagoen tokian zuen sotoa:

“Bisigutako garaian, normalian, ni sotuan geatzen nituan. Geatzen gitxun ni ta beste hiru bat, axkarrak giñanak... beste danak itsasoa juten tzian... Segun noa juten tzian..., adibidez, *Ixkotea* juten bazian, eguardirako libre giñan.”

Laburbilduz, Imanol Ibarbia 14 urtetatik 61 urtera arte itsasgizona izan zen, horietatik ia 30, bere anaiekin batera, armadore. Bere funtzioa makinistarena zen.

Hori izan zuen bizimodu eta ogibide Imanol 'Txurro'k. Bitarte horretan Felisa Ganboa Gorostizarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen.

2. KOKAPENA. GETARIAKO PORTUA

Getaria Gipuzkoako kostaldean dago kokatuta. Ia 3.000 biztanle dituen herri arrantzaleak iparraldean Kantauri Itsasoarekin egiten du muga, hego-mendebaldean, sei kilometrotara, Zumaiarekin, ekialdean, 3 kilometrotara, Zarautzekin, eta azkenik, hegoaldean Aia, Aizarnazabal eta Zarauzko hainbat auzorekin. Hiriburua bera ere, Donostia, 30 kilometro baino gutxiagora besterik ez du.

Portuari dagokionez, berriz, Getariako portua, herritarren artean *molla* bezala ezagunagoa, herriaren eta San Anton irlaren artean kokatuta, Bizkaiko Itsasoko portu seguruenetariko bat da eta baxurako

arrantzako gune garrantzitsua. Azken urteotan, eraldaketa esanguratsuak izan ditu, izan ere, kai eta zama lanetarako eremu berriak eraiki dituzte, baita aisialdiko itsasontzientzako nasak ere. Halaber, azpiegitura aproposa du aldi berean arrantzarako eta aisialdirako portu izateko².

Arrantzari zuzenki lotutako herria izaki, Getaria bere gastronomiari esker egin da ezaguna, batez ere, kanpotarrei arraina parrillan egiten ikusteak eta jateak erakartzen die, baita arraina kontserban nola egiten den ikusteak eta dastatzeak ere, jaki horien artean daude, besteak beste, hain preziatuak diren antxoa eta atuna.

Izen ofiziala	Getaria
Estatua	Espainia
Erkidegoa	Euskal Autonomia Erkidegoa
Lurralde Historikoa	Gipuzkoa
Eskualdea	Urola Kosta
Herritarra	getariar
Eremua	10,6 km ²
Garaiera	0-278 m
Distantzia	24 km Donostiara
Posta kodea	20808
Biztanleria	2.696 bizt. (2014)
Euskaldunen %	83,19
Dentsitatea	254,34 bizt./km ²
Sorrera	1209 hiri gutuna



“Getariako Antxoa” izendapena ezaugarri biologiko bereziak dituen arraina eta getariarren ehunka urtetako artea konbinatzearen emaitza da. Arte hori antxoaren tratamendu eta manipulazio esparru guztietako enpresa ekimenaren tradizio eta esperimentazio luzean islatzen da. Getariako antxoaren historia etengabeko espezializazioari lotuta dago, antxoaren harrapaketa, manipulazio, kontserbazio eta komertzializazio sistemen etengabeko hobekuntzari lotuta³.

Historian, Getaria Juan Sebastian Elkano marinelen jaioterria ere bada, munduari bira osoa eman zion lehenengoarena. Arrantza giroko herri hau Euskal Herriko kostako turismo gune ezaguna bihurtu da eta *Getariako Txakolina* jatorrizko izendapenaren udalerrri nagusia. Cristobal Balenciaga museoa ere bertan dago, hura ere marinelen semea.

2.1. Getariako portua Aro Modernoan

Urteetan atzera itzuliz, Getariako badia, San Anton irlak babestua, Gipuzkoako porturik onena eta babestuenena zen. Aro Modernoan zehar, arrantza asko garatu zen, eta Mutrikurekin batera, arraina transformatzeko industria zentro nagusi bilakatu ziren, eskabetxean nahiz arrain gazituan. Baina ibilbide komertzialetatik urrun egoteak eta lurretik hiribildurako sarrera zaila medio, potentzia handiko aktibitate komertzialak izatea eragotzi zitzaion hiribilduari. Beraz, arrantza aktibitate aparta, Pasaia, Donostia eta Mutrikurekin batera, kai honen funtzio nagusia aterpe portuarena izan zen.

Getaria eta Mutriku, urteko edozein garaitarako egokiak zirenak, berehala hasi ziren baxurako arrantzan, zeren eta arrantzako txalupa ahulek ez zuten inongo oztoporik portu horietara sartzeko, bereziki neguan, bisiguaren arrantza egiten zen urtarotan.

² <http://turismoa.euskadi.eus/eu/arrantza-portuak/getariako-portua/aa30-12375/eu/> web ataritik hartuta.

³ Getarian, 2011n, lehenengo aldiz ospatu zen *Antxua Egunean* argitaratu zuten *Gure Antxua/Nuestra anchoa* liburu didaktikoa. Liburu hori Euskadiko Arrantza Azokari esker kaleratu zen honako hauen laguntzari esker: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Elkano Arrantzaileen Kofradia, Getariako Udala, Azti Tecnalia eta Zehazten. 11. orrialdea.



Getariak eta Oriok, aterpe hartzeko Getaria erabiltzen zutenak, 1689an kapitulatu bat adostu zuten, non Getariako portuko azpiegituren erabileraren inguruan oriotarren eskubide eta betebeharrak arautzen ziren. Azpiegitura horien erabilera arrantzaren salmenta eta balearen harrapaketa ziren. 1721ean, Batzar Nagusiek Zarauzko arrantzaleei agindu zien getariarrekin antzeko akordioa adosteko⁴.



Madre del Creador itsaontziko aurreko eta atzeko tanbutxuak, platak alboan. Platak kamata egiteko erabiltzen ziren, bakailaoaren arrautzekin egina, batez ere antxoaren eta sardinaren harrapaketarako erabiltzen ziren. Ondoren, horiek atunetarako balio ziren.



Madre del Creador-en Iñaki eta Imanol aparejuak prestatzen.



Imanol eta Valentin 'Luxia' lagunak *Madre del Creador*-en.



'Luxia'k, bere ezkerreko eskuan atuna hartuta duela, argazki kameraren aurrean pozik.



Itsasontzian irakurtzen.



Popan afari-merienda ostantzean.

⁴ Datu hauek Xabier Alberdi Lonbidek *Conflictos de intereses en la economía marítima guipuzcoana. Siglos XVI-XVIII* izeneko doktore-tesitik hartutako datuak dira. Tesia Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak argitaratu zuen, 2012an.

3. HELBURUA

Lekukotzara jo dugu, XX. mendeko Euskal Herriko arrantzaren testuingurua kontutan hartuta, arrantza mundua nolakoa zen jakiteko eta herrian lan desberdinetan lanean jardun zuten pertsona batzuen aipamena egiteko. Kasu honetan Imanol Ibarbia 'Txurro' izan da aukeratua, herrian zegoen arrantzale zaharrenetarikoa zein ezagunetarikoa baitzen. Gainera, beste asko eta asko bezala, marinel izatetik armadore izatera pasatu zen. Marinel eta armadore izan zen urte guzti haietan, Getarian gertaera esanguratsuak izan ziren. Txosten honen xedea horien berri ematea ere bada.

Asko dira arrantza gaiak bere baitan jaso ditzakeen informazio motak, baina bat hautatu behar eta zer hobeto bizi-esperientzia duen bat baino.

4. ANTZOAREN ARRANTZARAKO AURRERAPENAK

Erdi Arotik sardina sareak edo maila sareak antxoak eta sardinak harrapatzeko erabili izan dira. Maila sare horiek oso aproposak ziren fresko kontsumituko ziren antxoak eta sardinak harrapatzeko, izan ere maila sareak erabiltzeko, beita erabiltzen zen, Getarian karnata izenarekin ezagutzen zena, antxoa eta sardinek sarean harrapatuta geratu aurretik irensten zutena. Karnata horrek fresko kontsumitzeko zein arrainari zapore ukitu oso estimatua ematen zion. Maila sareetan harrapatutako antxoei eta sardinei, sareak biltzerakoan, tripa lehertu egiten zitzairen. Ondorioz, odolustuta hiltzen ziren itsasoko urarekin kontaktuan, eta horrek haragiaren kalitatea are gehiago hobetzen zuen, egitura sendoagoa eta zapore hobea hartzen baitzituen, eta hori oso garrantzitsua zen fresko kontsumitzeko. Maila haietatik arrainak banan bana kentzea *despeskan* jardutea deitzen zitzaion, eta Getarian Agustina Lete eta beste hainbat emakume aritzen ziren lan hartan. Aldiz, maila sareetan eginiko harrapaketek ez zituzten gazitze industriaren beharrak asetzen. Alde batetik, harrapaketak murrizak izaten ziren, eta, horrenbestez, prezio aldetik garesti izaten zen. Bestalde, antxoen eta sardinaren tripak lehertzea ez zen batere onuragarria gatzetan jartzeko. Ondorioz, XVI. mendeko 30eko hamarkadan, arrantzan eta kontserba industrietan inbertsioak egiten zituzten enpresaburu getariar eta zarauztar ugarik gazitze industriarako antxoak eta sardinak harrapatzeko arraste sare handiak eta inguraketa-sareak –“atun sare” deiturikoak– inportatu zituzten Niza aldetik (Savoiaiko estatu italiarrekoa zen orduan). Sare horiek gazitze industriaren kalitate eskaerak betetzen zituzten, arrainak osorik biltzen baitziren, haien erraiak urratu gabe.

XVIII. mende amaieran inguraketa-sare berriak erabiltzen hasi ziren, *traina* deiturikoa, eta horrek benetako iraultza ekarri zuen arrantza-ontzien diseinuan. Sare horiek erabiltzeko maniobra azkarrak egin behar izaten zirenez, inguraketa-sare horiek erabiltzeko bereziki prestatutako ontzi mota bat garatu zen: *trainerua*⁵.

5. HARRAPAKETA MOTAK

Arrain motaren harrapaketari dagokionez, XX. mendearen lehenengo erdialde honetan behera egin zuten bisiguak eta legatzak. Hegaluzearen arrantza, berriz, ezinbesteko bilakatu zen, baita sardinaren harrapaketa ere (nahiz eta 1930 aldean bere beherakada nabarmentzen hasi), eta antxoarena berebiziko gorakada izaten hasi zen. Baina, gorabehera guzti hauen arrazoia, zalantzarik gabe, ohiko arrainen gehiegizko harrapaketa izan zen eta honek, noski, arrantza teknologian izandako aurrerapena izan zuen oinarri. Aldaketa horien artean aipagarria da arraun eta belaontziak alboratu eta baporeak geroz eta gehiago erabiltzen hastea. Aldaketa prozesu hori handiagoa izan zen, ordea, arrain handienen harrapaketan, XX. mendeko lehenengo hamarraldietan, sardinaren arrantza, batez ere, betiko tresnez egiten baitzen. Baporetan izandako aurrerapenek, arrasteko tresnez hornitu zirenean, neguko arrantzaren (bisigua eta legatza) berebiziko beherakada ekarri zuten, itsas portuetan deitzen zen *gose garaia* azarotik martxora luzatzen zelarik. Sasoi horretan kofradiak emandako maileguekin bizi behar izaten zuten arrantzaleek eta, aldi berean, handitu egiten ziren janari dendetan zituzten zorrak. Ohiko arrantzaren desagertzea arrasteko baporeen harrapaketa intentsiboaren ondorio zela salatu ohi zuten isildu gabe arrantzaleek, berezko haztegiak suntsitzen zutelako, eta arrainen errunaldia eteten. Ondorioz, arrasteko bapore handien arrantza itsasertzetik hurbil (7-12 milia bitarte) debeka zedin, eta ontzi hauek bakailaoaren harrapaketarako erabil zitezen

⁵ Bigarren orrialdeko hirugarren notako iturri bera.



eskatu ohi zuten sarritan arrantzaleek, horrela, herriko berezko arrantza mota berreskuratuko baitzen. Inportazio bolumen handiko gaia, bestalde.

XX. mendeko bigarren hamarraldian, 1927an, helburu hori bete ahal izan zen Pasaian sorturiko PYSBE enpresaren bidez, Ternua, Groenlandia eta Islandiako arrantza guneeetara itzuli baitziren gure arrantzaleak. Horren testigu, Getarian ezaguna zen Jose Luis Adrian zendua genuen, *Pysbe* ezizenarekin ezaguna egin zena. Antzeko garaian baporeekin eta, gerora, gasolio-motordun ontziekin Irlandako hegoaldeko arrantza tokietara itzuli ziren, behe Erdi Aroko tradizioa berreskuratuz.

Baina, gehiegizko arrantzaren errua ez zen bakarrik arrasteko baporeena, XIX. mendeko azkeneko eta XX. mendeko hasierako hamarkadetan sardinaren harrapaketa itxura gabekoa izan baitzen. Hala, aipatu beharrekoa da, *bolintxea* bezalako sareak (oso zabaldua Hego Euskal Herriko arrantzaleen artean) sardinatarako kaltegarritzat jotzen zituztela Britainia eta Lapurdiko arrantzaleek.

Gauza bera gertatu zen beste zenbait arrantza arterekin eta, batez ere, gauzez itsasora harriak boteaz edo arraunak uretan sartzean sorturiko argi islak baliatuz egiten zena, sardina eta antxoia harrapaketa handiak izaten baitziren argitasunera hurbiltzen zirenean. Sardinarekin gertatzen ari zenaz aparte, hegaluzearen harrapaketa ere handituz zihoan eta, neurri handi batean, baporeei esker, Kantabria eta Asturiasko uretara azkarrago hurbiltzeko aukera zutelako. Hala, ontzi konpainiak sortu ziren eta bakarren batzuk, egunero, eta txandaka, itsas portura itzul zitezkeen arrantzatutakoarekin eta, behin ontzia hustu ondoren, berriro itzuli arrantza tokira.

Arrainkiarekin zerikusia zuten industriek aurrerapen handia izan zuten XX. mendeko lehenengo hamarraldietan, harrapatutako arrainaren % 80tik gora gaitzeko edo kontserbatzeko baitzen. Industria honek, batez ere, Bermeo, Getaria eta Ondarroa inguruan, lana ekarri zuen itsas portuetara, batez ere, arrantzaleen emazte eta alabentzat, eta gose garaiari aurre egiteko beharrezkoa zen gehigarria. Soldata horren bidez eskuratzen zuten. Nolanahi ere, garai hartako adituek industria honen hutsuneak nabarmendu eta salatu zituzten. Hala, industria hau Italiako kontserbagileen esku izatea kritikatzeko, Kantauri aldeko produktuak beren herrialdekoak izango balira bezala saltzen baitzituzten, Euskal Herriko kontserbagileen aurkako kompetentzia desleiala eginez. Bestalde, etengabe gogorarazten zen kontserba eta arraina gazitzeko instalazioek ez zutela inbertsio gehiegirik behar eta, ondorioz, kofradiek, diru iturri garrantzitsua izan zitekeenez, ahaleginak egin beharko zituztela sektorea kontrolatzeko. Baina, instituzio hauek ez zuten proiektu hauetan sartu nahi izan. Eta ez ziren gai izan, bestalde, komertzializazio bide ezegokiei irtenbide bat emateko. Ondorioz, kontsumitzaileak portuan ordain zezaketan prezioa hirukoizturik ordaintzera iristen ziren sarritan.

Hala, arrantzale kofradien aurkako kritiko asko azaldu zen, erakunde atzerakoi eta arrantzaleen bizi baldintza txarren erruduntzat jotzen zituztenak. Egia esan, arrantzaleen egoera larria zen eta arrazoia arrantza sektoreko langileek (tostartekoak) soldatarik ez izatea eta, Erdi Aroan bezala, harrapatutakoaren araberrako zati proportzionala (*parte*) irabazten jarraitzea. Arrantzale gazteek, *txo* deitutuek, kostaldeko zenbait lekutan *partear*en 3/4 jasotzen zuten eta ontzietako sareak konpontzen edota arrantzaren inguruko lan osagarrietan ziharduten emakumezkoak apenas iristen ziren zatiaren laurdena irabaztera.

Ordainketa maila txikia zen, beste zenbait lan sektoretan kobratzen zenaren oso azpitik. Egoera hori, ordea, ez zen berria, XVI. mendeko agiritan ikusten baita orduan ere arrantzaleak miseria gorrian bizi zirela, eta XVIII. mendearen amaiera aldera gizarte klase txiroentzat jotzen zen. Garai horretan, nabarmenagoa zen arrantzaleen eta beste industria sektoreetako langileen arteko aldea. Hala, XX. mendearen hasieran, arrantzaleek baino 1,6 bider gehiago irabazten zuten nekazari alokazerek. Meatzariak arrantzaleen irabazien halako bi eta fabriketako langileek hiru bider gehiago. Beraz, ez da harritzekoa, 1930. urte aldera, arrantzale gehienak, % 90etik gora, bizi ziren etxearen jabe ez izatea eta kostaldeko zenbait herritan (Santurtzin, esaterako) sotoetan eta are berregokitutako upategi edo kortetan bizitzea. Bestalde, arrantzaleen arteko analfabeto proportzioa % 60tik gorakoa zen. Beren arteko hilkortasun tasa ere oso altua zen eta tuberkulosia, tifu sukarra edo alkoholismoa ziren gaitzik zabalduek. Egia esan, sarritan esan izan zaie, eta are leporatu ere, urte onetako irabaziak berehala xahutzen zituztela, etorkizunerako ez zutela ezer gordetzen, e.a. Hala eta guztiz ere, XX. mendeko hirugarren hamarkada aldera, artean gainerako sektoreetako langileek lorturiko lan baldintza hobekuntzarik lortzeko zeuden. Besteak beste, erretiroa, aseguruak (istripu, gaixotasun edo

ezgaitasun aseguruak), zortzi orduko laneguna, astean ordaindutako jaiegun bat, haurren lanaren arautzea...⁶.

6. ARRANTZAREN URREZKO URTEAK

Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik 1950eko hamarkadaren amaiera bitartean, Imanolek 35 urte zituenean eta *Marifloren* lanean ari zenean, Euskal Herriko arrantzaren ekonomiak oso urte onak izan zituen eta ondoren azalduko ditugu arrazoiak. Lehenik, gerrateak beharturik, arrantza toki tradizionaletan apenas izan zen arrantzarik eta honek arrainaren ugaltzea ekarri zuenez, 50eko hamarraldian harrapaketa urte onak izan ziren. Bestalde, arrantza ahalmena ere handitu egin zen, gasolio-motordun ontziak zabaldu baitziren baporeen ordean. Hegalaburraren arrantza era ere aldatu egin zen 1947an, karnata (bakailoaren arrautzak) bizia erabiltzen hasi zenean, asko ugartu zelarik arrantza kopurua. Aurrez erabiltzen zen maluta (artaburuko hostoz egindakoa) beitzak ordezkatu zen (bokarta), ordurako itsasbazterreko arrantzako ontziak arrain haztegi gordailuez horniturik baitzeuden.

7. IMANOL ARMADORE BIHURTU ETA HURRENGO URTEAK

Garai hartan, Euskal Herriko arrantzontzien flotaren hazkundera neurritz goitikoa izan zen, Francoren garaian ontzidiaren berrikuntza bultzatu zen Garapen Planaren eraginez, baina inolako planifikaziorik eta ikuspegi zorrotzik gabe. Plan horien ondorioz, Espainiako arrantzontzien flota munduko lehenengoetakoa izatera iritsi zen, bere arrantza tokiak urriak izan arren. Itsas Ontzidiaren Berrikuntzari buruzko Lege honen ildotik, ontzi jabeak geroz eta ontzi bizkorrago eta indar handiagokoak eraikitzeke gerra zoro batean murgildu ziren, izan zezakeen errentagarritasunari begiratu gabe.

Bestalde, ontzidiaren itxuragabeko hazkunde hori, itsasoa baliabide iturri agortezina zelako ustean oinarriturik zegoen, eta arrain motaren bat desagertuz gero (sardina, esaterako) beste berri eta errentagarritasun handiagoko bat sortuko zelako ustean. Alabaina, 1960ko hamarkada honetan itsasertz inguruko arrantza sektorean (antxoia eta hegaluzearen arrantza, batik bat) gertatu zen gauzarik txarrena ez zen ontzien kopurua handitzea (% 20), ontzien ahalmena handitzea baizik (% 100 igo baitzen), eta une hartan arrantza mota hau beherakako prozesuan zen. Nolanahi ere, itsasbazterreko arrantzaren beherakada beste sektoreen gorakadarekin, esaterako bakailoaren gorakadarekin, berdindu zen. Baina, 1970eko hamarkadan, antxoia ontzien arrantza ahalmena % 250etik gora zegoen. Neurri gabeko arrantza urteak izan ziren. Eta halako gehiegikeriak egiten ziren, ezen muga jarri baitzen antxoaren arrantzan, 8 tona egun eta ontziko. Bestalde, gehiegizko arrantza horrek arrain freskoaren prezioa jaitsi eta kontserba fabrikak eskaintzen zituzten lehengaiari buelta eman ezinean jarri zituen. Egoera, ordea, korapilatzen joan zen 1960ko hamarraldiaren amaiera aldera, antxoaren migrazioa aldatu eta Euskal Herri kontinentaleko itsasertzean geratzen hasi zenean. Eta, orduan, istilu latzak sortu ziren bi aldeetako arrantzaleen artean.

Nahiz eta itsasbazterreko arrantzak antxoia ziurtaturik izan udaberria aldera eta hegaluzea udan, ontzien tamaina hainbeste handitu zen non ez baitzuen merezi bisigu otar gutxi batzuk arrantzatzeke erabiltzea. Hala, Gipuzkoan arrantzaleek bokartari ekin zioten negu aldean. Bizkaitarrek, berriz, hegaluzearen arrantza tokien bila jarraitzen zuten. Eta uda sasoiaren Galiziako itsasertzetik 500-700 milia bazebiltzan ere, hegaluze zein hegalaburra Kanaria uharteetan, Mendebaldeko Afrikan eta Mediterraneoan harrapatzeke aukerari jarraituz, izugarri zabaldu zituzten ohiko itsasoko bideak. Arrantza leku berrien bila, gure arrantzaleak Hego Ameriketara eta *Seychelles* uharteetara iritsi ziren, baina hedapen planifikatu gabea izanik, galerak larriak izan zitezkeen. Gainera, kontraesana zen, teknologikoki aurreraturiko arrantza moderno honek (ekozunda, hozkailu eta 500 zaldiko potentziako motorrak) enpresa artisauek eta industria aurrekoa baitzuen atzean. Ez zuen batere logikarik arrantza enpresak ontzi bakar batez eta familia kapitalaz osaturik egotea, arrantza sektoreko lanpostu bakoitzak 500.000 pezetako inbertsioa behar zuenean, edozein industria sektoreko batz bestekoaren oso goitiko kopurua, bestalde. Horrez gainera, enpresa horiek ez zuten egiten (kofradien bidez egiten zen) eta langileek, Erdi Aroan bezala, zegokien *partiya* kobratzen jarraitzen zuten. Nolanahi ere, horri esker iraun izan

⁶ Informazio teknikoaren zuzen jaso asmoz, *wikipediara* jo dugu Euskal Herriko arrantzaren historia ezagutzeko. XX. mendeko arrantzan interesatu gara, orduan izan baitzen Imanol Ibarbiaren hastapena arrantza munduan: https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_Herriko_arrantzaren_historia#XX._mendearen_lehenengo_erdia




zuen itsasbazerreko arrantzak, ezinezkoa baitzitzaien hileroko soldata finko bat eta zegozkien aseguru sozialen gastuak ordaintzea.

Alabaina, itsasbazerreko edo itsasbazerreko arrantzontziaren hazkundera nabarmenagoa izan zen Bizkaian Gipuzkoan baino. Izan ere, Gipuzkoan arrantzaren ustiapena aurrekontu zentzudunagoetan oinarritu baitzen, hobari handiagoa eman zezakeen itsas zabaleko eta arrasteko arrantzan. Enpresa handiago, ontzi bakoitzeko marinel gehiago eta, azken batean, itsasoaren ustiapen modernoagoko irizpideak jarraitu ziren. Alabaina, Gipuzkoako hazkundera, neurri handi batean, itsas portu bakar bateko (Pasaia) ontzidiari lotu behar zaio, probintzia osoko arrantzaren % 70 izatera iritsi baitzen.

8. INOIZ IRITSI EZ ZEN TRENA

1922 eta 1926 urteen artean, Getarian eta inguruko herrietan, Zarautz eta Zumaian, Urola trenaren aldeko interesa sortu zen. Orduan, propagandako kanpaina eta guzti egin zen, batez ere Getariako Udalak bultzatuta. Izan ere, trenbidea San Anton mendixkara irits zedin nahi zuten. Hori eginez gero, herria komertziora irekiko zen eta arrantzako produktuen irteera ahalbidetuko zuen; freskoan nahiz kontserban eta gazituan.



Trenbidearen eta Getariako moilaren handitze lanen proiektuaren plano. 1947.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 1947an, J.M. Gabaraini aurreproiektu bat egiteko eskatu zion, honako izen hau zuelarik: "Anteproyecto de ramales ferroviarios a Getaria y Micolalde". Proiektu horrek, gainera, Lizarra-Gasteiz-Mekolalde (Mekolalde Bergara eta Osintxu artean dago) tren-lineak zerbitzatzen zituen eremuei ere mesede egingo zien.

Urte guzti horietan Urola Kostako lan guztiak Pasaia eta Bilboko portuetan egiten ziren. Eskualdeko portu komertzial gisa, Zumaia baztertuta geratu zen, aldiz, Getaria, kostako ainguralekurik onena izaki, baldintza onen ezaugarri, moilakoak nahiz estrategiakoak, portu bakarra Pasaia eta Bilbo arteko trafikoaren sarbidearekin, Urola eta Deba ibaiekiko ondo kokatuta, portu komertzial egokia bihur zitekeen.

Planteamendua zen karril estuko linea bakarra eta elektrifikatua egitea Urola trenarekin lotura edukiko zuena, eta ondoren, beste bat, Urola Mekolalderekin lotuko zuena. Iribarren izan zen aurreproiektua martxan jarri zuena, eta Getariako portuaren handitzen lanak egingo zituen, arrantza moila portu komertziala bihurtzekoak, hain zuzen ere.

Baina lanekin hasi zirenean, zailtasun tekniko handiak eta bere prezio altua medio, atzera bota zen proiektua⁷.

⁷ BENITO DOMINGUEZ, Ana María: *Estudio histórico del puerto de Getaria. Getaria, una villa volcada al mar*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1999.

9. HAMAR URTEAN BEHERAKADA

Euskal Herriko arrantza sektoreak 1970eko eta 1980ko hamarkadetan izan zuen beherakada aurreko zabalpen itxuragabekoaren ondorio izan zen. Eta jakina, ondorio latzak izan zituen Euskal Herri osoan, nahiz eta Hegoaldean larriagoak izan ziren. Estatistikak erakusten duenez, Hegoaldean 1972. urtean, 1.100 arrantzale profesional zeuden eta hamar urteren buruan erdia. Gipuzkoa eta Bizkaiko arrantza 1970eko hamarraldian atzerriko uretan izaten zen hirutik biko kopuruan. Baina arazoa are larriagoa zen, aipaturiko bi probintzia hauetako ontzidiaz Europako Ekonomia Erkidegoko zenbait herrialdetakoa baino handiagoa zela kontuan izaten badugu (Alemania eta Ingalaterrakoa, esaterako), eta itsasbazerreko arrantzaren produktibitatea, berriz, Europako herrialde garatuenetakoaren aldean, erdia baino ez.

Horrela bada, 1977. urtean herrialde gehienek beren lurralde urak 200 miliatara hedatu zituztenean, arrantza sektorearen zabalpena eten, moztu egin zen. Garai honi dagokionez, esan behar da Pasaiako arraste ontziak % 80 murriztu zirela eta 1972an 86 bakailao ontzi izatetik 25eko ontzidiaz izatera pasa zela 1986an. Europako Ekonomia Erkidegoaren arrantza politikak, beren uretako arrantza kopuruaren erabateko beherapena ekarri zuen. Gure arrantzaleak bakailaora joaten zireneko zenbait herrialdek (Islandia, Norvegia eta Kanada, esaterako) murriztapen handiak jarri zizkieten. Maroko, Estatu Batuak eta Malvinetako uretan lan egiten zuten arrantzaleek ere, arrisku larrian izan zituzten erabilitako arrantza tokiak.

Garai honetan hedapen handia izan zuen sektore bakarra hegaluze ontzi izozkailu modernoarena izan zen, beren arrantza maila 1965eko 3.200 tonatik 90.300 tonara pasa baitzen 1986an. Itsasbazerreko arrantzari dagokionez, beherakada begi bistakoa zen, legatz ontzi txikien biziraupeneko lanak erakusten du garbi asko (normalean, gainera, arrantzale zaharrek tripulazioak izaten zituzten) edota Gipuzkoako itsasbazerreko ontzidiaren egoerak, arrantzaleak azarotik martxora bitarte kaian bueltaka izaten baitziren, langabeziari zegokiona irabaziz hilabete horietan.

Eta horren guztiaren ondoren, agerikoa zen ontzidiaz, oro har, zahartzen ari zela (ontziek, batez beste, 1986an, 16 urte zituzten). Beraz, gehiegizko arrantza ahalmeneko sektorearen ondorio baino ez, eta ez zen erraza izango birmoldatzea, ontzidiaren murriztapen handi bat egin gabe. Egia da, baita ere, ez zela lehenengo krisialdia Euskal Herriko arrantzaren historian, lehenago ere ikusi dugunez (XVI. mendearen amaiera, XVIII. mendearen hasiera eta XIX.eko lehenengo hamarraldiak) gure gaurko arrantzaleen arbasoak ere berenak eta bi ikusiak baitziren. Baina egoerari buelta ematen jakin zuten eta hori zen, hain zuzen ere, XX. mendearen bukaerako dema.



Imanol, erretiroa hartu eta txibitara. Atzean duen bigarren baporea *Haizetsu* da.